Astigarragako Udala

**MOZIOA GOBERNU ONAZ, GARDENTASUNAZ ETA INFORMAZIORAKO ESKUBIDEAZ, 2019TIK GAUR ARTE EGINDAKO URRATSAK DIRELA ETA**

Erakunde baten kalitate demokratikoa gobernu onaren, gardentasunaren eta kontuak ematearen printzipioekin duen konpromisoaren arabera neurtzen da, besteak beste. Alde horretatik, Astigarragako Udalaren egitekoa da herritarrek eta udaltaldeek kudeaketa publikoari buruzko informazio egiazkoa eta osoa eskuragarri edukitzeko eskubidea ziurtatzea, bai eta eragiten dieten gaietan parte hartzeko duten eskubidea ziurtatzea ere.

Astigarragako Udalak 2019ko udaberrian onartu zuen arlo hori arautu eta bere konpromisoa taxutzeko ordenantza: “Parte-hartze, informazio eta gardentasun arautegia” (GAO 2019-04-13).

2015-19ko agintaldian, tamalez, urrats esanguratsurik ez zuen eman Udalak ordenantza hori betetzeko, bereziki udal jardunaren informaziorik ez zen argitaratu webgunean edota sare sozialetan eta ez zen, salbuespenen bat kenduta, parte-hartze prozesurik burutu. Alabaina 2019ko eta 2023ko agintaldietan urrats erabakigarriak egin dira, informazioari, gardentasunari nahiz partehartzeari doakionez. Hona hemen:

**INFORMAZIOA EMATEA ETA ESKURA JARTZEA:** 2019ko uztailetik aurrera udal informazioa sistematikoki argitaratu da webgunean, bai informazio administratiboa (espediente eta deialdiekin lotutako informazioa), bai jardun eta ekimenen informazioa

Adibide gisa, honatx datu batzuk: 2019ko uztailetik 2025eko urrira 1076 albiste argitaratu dira; 2023an 150, 2024an 160 eta 2025ean urriaren 31ra arte 130 albiste. Albiste horiei gehitu behar zaizkie sare sozialetako eduki/txioak eta bestelako euskarrietako informazio-emateak (kartelak, bideoak, bandoak…). 2022an, hori guztia osatzeko, udal aldizkaria argitaratzen hasi zen Udala (Txiokaria).

**PARTE HARTZEA:** 2019ko eta 2023ko agintaldietan burutu diren parte-hartze prozesuen kopurua eta garrantzia esanguratsua da, Udalaren jokamoldea eta konpromisoa garbi erakusten dutenak. Hona hemen zerrenda modura emanda:

**Parte hartze prozesuak edota parte hartzeko faseak izan dituzten proiektuak:**

• 2019-2023 agintaldian
• Plan orokorra berrikusteko prozesua (HAPO), fase guztietan
• Emakumeon etxea
• Kiroldegia berritzeko proiektua
• Terrazen ordenantza
• Sagardoetxea
• Kontxa Etxeberria foroa
• Haurren jolastokiak
• Hezkuntzako azpiegiturak, haurreskola...
• Animalien araudia
• 2023-27 agintaldian

• Irisgarritasuna
• Tokiko garapena
• Berdintasun plana
• Euskararen plan estrategikoa
• Kultur Etxe zaharra gazteentzat
• Adineko pertsonentzako zentroa
• Bidebitarte poligonoko elkartea
• Zaintza plana
• Hezkidetza

**Bilerak interesdunekin eta auzotarrekin, obra zehatzei buruz:**

• Emakumeon plaza
• Donostia ibilbideko hiritartze lanak
• Arrobitxulo igogailua eta hiritartzea
• Santiagomendiko hiritartze lanak
• Añarberen ur hornidurako hodia (Anuska, Kale Nagusia, Oiarbide)
• Ergobiko hiritartze lanak

**Urteroko bilerak:**

• Elkarteekin bilerak urtero (Emakumeon Etxea, Herri Eskolako guraso elkartea, Mundarro, Astiko, Astigar, Eragiyok, jai batzordea, auzoetako jaien antolatzaileak…)
• Aurrekontu partehatzaileak
• Auzoz auzoko bilerak
• Ekitaldien aurkezpenak (legegintzaldi plana, Geriza programa, zaintza mahaia...)
Alkatetzak edo udal gobernuak herritarrekin/interesdunekin bilerak:
• Landa eremuko bizilagunekin
• Auzo ordezkariekin
• Elkarte berriekin
• Kasu partikularrak (herritarak, enpresak, bizilagunen komunitateak…)

**PARTE HARTZEA ETA GARDENTASUNA UDALAREN JARDUNEAN ETA UDALTALDEEKIN:** 2019ko eta 2023ko agintaldietan erabaki ugari hartu dira udaltaldeen jarduna errazteko eta informazioa eskura edukitzeko, modu sistematikoan, gardentasunaren mesedetan. Hona hemen, nagusienak:

• 2024-25ean gauzatu den berrantolaketa: antolamendua aldatu, koordinazioa indartu, ekarpenak eta langileen iritziak artikulatzeko espazioak sortu (eremukako jarduna)...
• Langileen ordezkariekin harreman etengabea.
• Batzorde informatiboetara edozein zinegotzi bertaratzeko aukera (nahiz titularra ez izan).
Udaltaldeen lana errazteko eta parte hartzea sustatzeko hainbat neurri eta erabaki:
• Txiokarian iritzia emateko aukera
• Intraneta dokumentazioa beti eskura edukitzeko
• Plenoko/tokiko gaien dokumetazioa 12 egun aurretik batzordeen deialdiarekin
• Kontratazio mahai iraunkorraren deialdi eta dokumentu guztiak udaltalde

guztiei
• Kudeaketa txostenak (datu estatistikoak jasotzeko eta kudeaketaren jarraipena egin eta bilakaera ezagutzeko)
• Alkatetzaren eta udal zerbitzuen ateak zabalik, galderak egiteko, zalantzak argitzeko, ekarpenak egiteko.
• Alkatearen 19 eskumen Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetuta, espedienteen eta erabakien informazioa partekatua izateko.
• Espediente eskariak eskatze soilarekin emateko alkate-agindua.

**ADOSTASUN ERABAKIETAN:** informazioan, parte hartzean, harremanetan eta gardentasunean egin den ahaleginak ondorio garbi bat du, hain zuzen ere erabakien adostasun maila. Datu argigarria da Osoko Bilkuran nahiz Tokiko Gobernu Batzarrean aho batez hartutako akordioen datua. 2019ko agintaldian, bi organo horietan orotara 864 erabaki hartu ziren eta horietatik 781 (%90,39) aho batez. 2023ko agintaldian hari beretik doaz gauzak, izan ere 2025eko uztailaren 31ra arte bi organo horiek onartu dituzten 420 akordioetatik 396 aho batez onartu dira (%94,29).

Egindako bidea oparoa eta azpimarragarria izanagatik, ordea, ez dago bertan goxo egoterik eta Udalak jarraitu beharra dauka informazioan, parte hartzean eta gardentasunean urratsak egiten. Abian jartzera goazen Arreta Zerbitzu berria pauso eraginkorra izango da bide horretan.

Hori guztia kontuan hartuta, **honakoak adierazten eta honako konpromisoak berresten ditu Osoko Bilkura**k:

1. Gobernu onaren, gardentasunaren eta kontuak ematearen printzipioak berresten ditugu eta udal gobernuari eskatzen diogu ildo beretik lanean jarrai dezala, azken urteotan egindako lana azpimarragarria izan delako, bereziki informazioaren, partehartzearen eta gardentasunaren arloan.

2. Udal gobernuari eskatzen diogu urratsak egin ditzala udaletxea eta batzar aretoa irisgarriak izateko eta abian jartzea Osoko Bilkurak internetez jarraitu ahal izateko sistemak.

3. Udal gobernuari eskatzen diogu jarrai dezala udaltaldeen lana errazteko martxan jarri diren neurri eta mekanismoak eskaintzen (dokumentazioa aurrez, intraneta, informazio eta kudeaketa txostenak, emendakinak aurkezteko prozesuak, iritzia emateko euskarriak…).

4. Udal gobernuari eskatzen diogu jarrai dezala oro har etengabeko hobekuntzaren ikuspegiarekin, herritarrei zerbitzu hobeak eskaintzeko xedez.

Astigarragako Udala

**MOCIÓN SOBRE EL BUEN GOBIERNO, LA TRANSPARENCIA Y EL DERECHO A LA INFORMACIÓN, PASOS DADOS DESDE 2019 HASTA LA ACTUALIDAD**

La calidad democrática de una institución se mide por su compromiso con los principios de buen gobierno, transparencia y rendición de cuentas, entre otros. En este sentido, es misión del Ayuntamiento de Astigarraga asegurar el derecho de la ciudadanía y de los grupos municipales a disponer de información veraz y completa sobre la gestión pública, así como a participar en los asuntos que les afecten.

El Ayuntamiento de Astigarraga aprobó en primavera de 2019 la Ordenanza reguladora de esta materia y su compromiso "Reglamento de participación, información y transparencia" (BOG 13-04-2019).

Durante el mandato 2015-19, lamentablemente, el Ayuntamiento no dio pasos significativos para dar cumplimiento a dicha ordenanza, especialmente no se publicó información de la actuación municipal en la web ni en las redes sociales y no se llevó a cabo, salvo alguna excepción, ningún proceso participativo. Sin embargo, en los mandatos de 2019 y 2023 se han dado pasos decisivos, información, transparencia y participación. He aquí:

**INFORMACIÓN Y PUESTA A DISPOSICIÓN:** a partir de julio de 2019 la información municipal se ha publicado sistemáticamente en la web, tanto información administrativa (relacionada con expedientes y convocatorias) como información de actuaciones e iniciativas.

A modo de ejemplo, estos son algunos datos: de julio de 2019 a octubre de 2025 se han publicado 1076 noticias; en 2023 150, en 2024 160 y en 2025 hasta el 31 de octubre 130 noticias. A estas noticias hay que añadir los contenidos/tuits en redes sociales y las entregas de información en otros soportes (carteles, vídeos, bandos...). En 2022, a todo ello se le sumó que el Ayuntamiento comenzó a publicar la revista municipal (Txiokaria).

**PARTICIPACIÓN:** El número e importancia de los procesos participativos que se han llevado a cabo durante los mandatos de 2019 y 2023 es significativo, y reflejan claramente el comportamiento y compromiso del Ayuntamiento. La relación es la siguiente:

**Proyectos con procesos participativos y/o fases participativas:**

<u>Durante el mandato 2019-2023</u>
• Proceso de revisión del Plan General (PGOU) en todas sus fases
• Emakumeon Etxea
• Proyecto de reforma del polideportivo
• Ordenanza de terrazas
• Sagardoetxea
• Foro Kontxa Etxeberria
• Parques infantiles
• Infraestructuras educativas, haurreskola...
• Normativa animal

<u>2023-27 durante el mandato</u>
• Accesibilidad

• Desarrollo local
• Plan de igualdad
• Plan estratégico de euskera
• Antigua Casa de Cultura para jóvenes
• Centro para personas mayores
• Asociación Polígono Bidebitarte
• Plan de cuidados
• Coeducación

**Reuniones con personas interesadas y vecinas/os sobre obras concretas:**

• Emakumeon plaza
• Urbanización Donostia Ibilbidea
• Ascensor y urbanización Arrobitxulo
• Urbanización de Santiagomendi
• Tubería de abastecimiento del Añarbe (Anuska, Gran Vía, Oiarbide)
• Urbanización Ergobia

**Reuniones anuales:**

• Reuniones anuales con las asociaciones (Emakumeon Etxea, AMPA de la Herri Eskola, Mundarro, Astiko, Astigar, Eragiyok, comisión de fiestas, fiestas de los barrios organizadores...)
• Presupuestos participativos
• Reuniones barrio a barrio
• Presentaciones de eventos (plan de legislatura, programa Geriza, vigilancia mesa...)

**Reuniones de alcaldía o gobierno municipal con ciudadanía/interesadas/os:**

• Con vecinos/as del medio rural
• Con representantes vecinales
• Con nuevas asociaciones
• Casos particulares (ciudadanía, empresas, comunidades de vecinos/as...)

**PARTICIPACIÓN Y TRANSPARENCIA EN LA ACTUACIÓN DEL AYUNTAMIENTO Y CON LOS GRUPOS DE TRABAJO:** durante los mandatos de 2019 y 2023 se han adoptado numerosos acuerdos para facilitar la actuación de los Grupos Municipales y el acceso sistemático a la información en aras de la transparencia. Los principales son:

• Reordenación realizada en 2024-25: cambio organizativo, coordinación
crear espacios para articular las aportaciones y las opiniones de trabajadores/as.
(actuación por ámbitos)...
• Contacto permanente con representantes de trabajadores/as.
• Posibilidad de asistir a las comisiones informativas cualquier concejal/a.
**Algunas medidas para facilitar el trabajo y la participación da los grupos municipales:**
• Artículo de opinión en Txiokaria
• Intranet para tener siempre a mano la documentación
• Documentación de Pleno/Ajunta de Gobierno con 12 días de antelación con convocatoria de comisiones

• Todas las convocatorias y documentos de la Mesa Permanente de Contratación
a todos los partidos
• Informes de gestión (para la recogida de datos estadísticos y seguimiento y evolución)
• Abiertas las puertas de la Alcaldía y de los servicios municipales para formular preguntas, clarificación, aportaciones.
• 19 competencias del Alcalde delegadas en la Junta de Gobierno Local, para que la información de los expedientes y acuerdos sea compartida.
• Orden de alcaldía para entregar los expedientes directamente cuando se soliciten.

**CONSENSO EN LAS DECISIONES:** el esfuerzo realizado en información, participación, relaciones y transparencia tiene una clara consecuencia, el grado de acuerdo de las decisiones. Un dato clarificador es el dato de los acuerdos adoptados por unanimidad tanto en el Pleno como en la Junta de Gobierno Local. Durante el mandato de 2019, en ambos órganos se adoptaron un total de 864 acuerdos, de los que 781 (90,39%) fueron adoptados por unanimidad. Durante el mandato de 2023 las cosas siguen en el mismo sentido, ya que de los 420 acuerdos aprobados por ambos órganos hasta el 31 de julio de 2025, 396 han sido aprobados por unanimidad (94,29%).

Sin embargo, el camino recorrido es muy amplio y destacable, por lo que el Ayuntamiento debe seguir dando pasos en la información, participación y transparencia. El nuevo Servicio de Atención que vamos a poner en marcha será un paso efectivo en este camino.

**Por todo ello, el Pleno manifiesta y ratifica los siguientes compromisos:**

1. Nos reafirmamos en los principios de buen gobierno, transparencia y rendición de cuentas e instamos al gobierno municipal a seguir trabajando en la misma línea, ya que la labor desarrollada en los últimos años ha sido destacable, especialmente en materia de información, participación y transparencia.

2. Instamos al gobierno municipal a dar pasos para que en Ayuntamienyo y salón de plenos sean accesibles y poner en marcha sistemas para que el Pleno pueda seguir por internet.

3. Se insta al gobierno municipal a seguir ofreciendo las medidas y mecanismos puestos en marcha para facilitar la labor de los grupos municipales (documentación previa, intranet, informes de información y gestión, procesos de presentación de enmiendas, soportes de opinión...).

4. Instamos al gobierno municipal a que continúe en general con una visión de mejora continua con el fin de ofrecer mejores servicios a la ciudadanía.